

Elhuyar, oso-osorik sarean

Ansa Maiz, Lurdes
Elhuyar Edizioak

Esku artean duzun aldizkari honek ere izan zuen bere aitzindaria. *Elhuyar* izena zuen, eta hogeituz argitaratu zen. 1996an utzi zion paperean argitaratzeari, eta, orduz geroztik, liburutegietan bakarrik gorde da. Orain, Internetek berpiztu egin du *Elhuyar*, hogeituz urtean bildutako jakintza nahi duenaren eskura dago sarean.

1976AN, *ELHUYAR* ALDIZKARIA IZENENKO ARGITALPENEAN kaleratzen hasi ginen zientzia eta teknologiaren dibulgaziorako euskarazko artikulua; urtean 3-4 ale-tan biltzen genituen artikulua, eta, gaur bezalaxe, gai asko eta arlo desberdinetakoak ziren: matematika, kimika, fisika, informatika, astronomia eta abar. Irakasleak, ikasleak, arloko iker-tzaileak... ziren gure kolaboratzaileak, eta haiei guztiei esker hasi ginen aldizkariari forma ematen: terminologia landu, kontzeptuak argitu, hizkuntza-zuzenketak egin, maketazio-lanak egin, irudi eta grafikoak egin, eta argitaratu.



Garai xumeak ziren haiek, eta, guztien ahaleginarekin, urtean 3-4 ale kaleratzen genituen. Pixkanaka-pixkanaka, irudiz hornitu, diseinua landu eta hileroko maiztasuna eman diogu, eta gaur eguneko aldizkariari iritsi gara.

Baina eginiko lanak ahaztuak gera ez daitezten, hileroko aldizkari bilakatu aurreko artikulua guztiak bildu eta sarean jarri nahi izan ditugu. Interneten aukerak baliatu eta liburutegiko alei hautsa kenduz, guztiak digitalizatu eta pdf moduan jarri ditugu (www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/). Bagenekien kolaboratzaile asko, lagun asko esango nuke nik, izan genituela,

baina guztiak zerrendatu ditugunean ohartu gara zenbaterainoko altxorra dugun; batzuk ezagunak besteak ezagunak, batzuk oraindik ere horretan ari direnak eta besteak jada lan horiek utziak dituztenak, batzuk jada gure artean ez direnak... Guztira, 1976-1994 urteen arteko 61 ale, 600 artikulua, 500 egile inguru eta ilusio askorekin egin dugu topo, eta hori guztia zuei eskaini eta zuentzat ere erabilgarri izan dadin lan egin dugu.

“Izan zirelako gara”, horretan dudarik ez daukagu, eta “garelako izan daitezela”. Hala nahiko genuke.